

AULESTI / Ilustrazio tailerrak egingo dituzte umeek liburutegian, barikuan

5 eta 8 urte bitartekoek 16:30ean egingo dute tailerra, eta 9 urtetik aurrerakoek, 18:30etik aurrera.

Asier Alkorta

Udal liburutegiak antolatuta, ilustrazio tailerra eskainiko da barikuan. Ekimenaren helburua ipuinetako eta liburuetaiko ilustrazioaren mundua umeengana hurreratzea da.

Jon Zabaleta ilustratzaileak gidatuko du barikuko tailerra. 5 urtetik aurrerako umeek hainbat eta hainbat ilustrazio egin ahalko dituzte profesional baten laguntzagaz, eta horrela, ilustrazioaren mundua gertu-gertutik ezagutzeko aukera edukiko dute.

Bi taldetan banatuta

Tailerrean partu hartuko duten ume kopurua handia denez, antolatzaileek talde bi egitea erabaki dute: 5 eta 8 urte bitarteko umeek 16:30ean egon beharko dute liburutegian, eta gainontzekoek, hau da, 9 urtetik aurrerakoek, 18:30ean.

Margoak eskuan hartu eta idatzitakoaren gainean marrazkiak eginez, ondo baino hobeto pasatzeko aukera edukiko dute herriko gazteenek.